

DVD grabagailuak iritsi dira. Hil ere bai?

Josu Waliño Pizarro
Informatikan lizentziatua

DVD irakurgailuak aspaldi hasiak dira bideoaren tokia hartzen. Baina bideoak orain arte eutsi badio, grabatzeko duen ahalmenagatik izan da. DVD grabagailuak badatoz, ordea, eta beraiekin bideoaren heriotza ere. Baina horrek etorkizuna DVDarena dela esan nahi al du? Agian ez.

BIDEOA EZ DA HIL, BAINA HILZORIAN DAGO. Gero eta etxe gehiagotan ikus daitezke DVD irakurgailuak; kalitate hobea ematen duen sistema eskaintzen dute, bideoak eskaintzen ez dituen hainbat abantailarekin: soinu digitala, hainbat hizkuntzako azpittuluak, aukera interaktiboak etab.

Baina orain arte DVDak izan duen arerio nagusia bere burua izan da, zalan-tzarik gabe. DVD irakurgailuak besterik ez ditugu izan merkatuan, eta, beraz, ezin genuen telebistako partidua formatu honetan grabatu, edo gauean botatzen duten pelikula horren amaiera grabatu. Horretarako bideo arruntera itzuli beharrean egon gara beti.



Amaitu dira horrelakoak, eta merkatu-ratu diren DVD grabagailuek epe labur-rean DVDa merkatuko jauntxoak izango dela adierazten dute. Arazoa zera da: dauden grabaziorako estandar-etatik zein izango da garaile?

DVDa estandarizatzeko DVD Forum izeneko erakundea osatu zuten hardware-garatzailuek. Erakunde horren helburu nagusia DVD formatuen estandarrek ezartzea izan da, eta egun lan horretan jarraitzen du. Ondoko taulan agertzen den zerrendan dituzue estandar bakoitzaren ezaugarriak.

DVD grabagailuetarako hiru estandar merkaturatu dira: DVD-Ra, DVD-RAMa eta DVD-RWa. Azken horrek ez du DVD Forumen onespenerik, baina formatu horretan grabatutako diskoak beste

edozein irakurgailutan arazorik gabe irakur daitezke.

Grabagailuak

Esan bezala, hasiak dira merkatuan DVD grabagailuak agertzen. Azkena Philipsek aurkeztutako DVDR1000 izan da. Grabagailu horrek (beste askok bezalaxe) DVD-RW formatua erabiltzen du; horrela, 4,7 GB-eko edukiera du diskoaren alde bakoitzean. DVDak Mpeg2 konpresio-sistema erabiltzen du, eta, beraz, konpresio-mailaren arabera ezartzen da grabazio-denbora. Grabazioaren kalitate handienarekin ordubeste besterik ezin da grabatu horrelako disko batean, baina kalitatea DVD komertzial baten mailara jaitziz bi orduko grabazioa egin daiteke. Dena den, badago gehiago grabatzerik,



LongPlay moduko grabazioak ere eskaintzen baitituzte DVD grabagailuek, eta kalitatea jaitziz gero lau ordura arte graba dezakete. Kontuan izan kalitatea guztiz jaitzita ere VHS arrunta baino hobeago izango dela beti DVDa.

“DVD bakoitzean egindako grabazio bakoitzari irudi eta izen bat ezarriko dizkio aparatuak berak, eta horrela indize bat sortzeko aukera eskainiko du”

Aukera asko eskaintzen dituzte, dena den, horrelako aparatuek. Esaterako, DVD bakoitzean egindako grabazio bakoitzari irudi eta izen bat ezarriko dizkio aparatuak berak, eta horrela indize bat sortzeko aukera eskainiko du. Sistema horrekin ez dugu atzera eta aurrera ibili beharko grabatutakoaren bila, guztia digitalki grabatuta baitago.

Teklaturik gabe tekleatu

Senseboard konpainiak garatu duen Virtual Keyboard erabiliz, ez duzu teklatuaren beharrik izango zure ordenagailuan, telefono mugikorrean edo antzeko gailuan idazteko. Horretarako nahikoa duzu eskuak mugitzea.

Eskuetan sentsore bana jarri eta behatzekin egindako mugimenduak aztertzen ditu Virtual Keyboard-ak eta mugimendu horiek adierazten dutena zure ordenagailu edo antzeko gailura bidali. Horretarako ez du kablerik erabiltzen, bluetooth eta antzeko teknologiez baliatzen baita.



Ez dakigu noiz egongo den merkatuan, baina aurtengo Comdex 2001 azokan ikusgai egoteaz gain, bertako sari nagusia irabazi zuen asmakizun honek. www.senseboard.com

Grabagailu horiek gaur egun duten arazo nagusia salneurria da. Gisa honetako produktuak merkaturatzen diren bakoitzean gertatu ohi den bezala, oso garestiak dira, bai grabagailuak baita DVD-RW diskoak ere. Philips-ek kaleratutako honek 2.100 _ inguru balio du eta DVD-RW disko arrunt batek 20 _ inguru.

Etorkizuna?

Etexeko zinema delakoaren etorkizuna hemendik ote doan nahiko zalantzagarria da, atzetik datorren telebista digitala hartzen ari den abiadura kontuan izanez gero. Epe oso laburrean telebista digitalak toki berezia hartuko du

gure etxeetan, eta pantaila txoro bat izateaz gain, ordenagailu txiki batez lagunduriko telebista izango dugu. Halaber, ez da ahaztu behar zinemamunduko estudio handiek egin berri duten apustua: pelikulen alokairua Internet bidez. Horretarako banda-zabaleria asko handitu beharko da, baina jada garatzen hasi diren teknologia da hori ere. Ez harritu, beraz, urte gutxi barru pelikulak zuzenean Internet bidez alokatu eta jasotzen baditugu eta egin beharreko grabazioak zuzenean disko gogorrean egiten baditugu. DVDarekin zer gertatuko den orduan? Galdetu LaserDiscari. ☐

Merkatuan dauden DVD formatuak

DVD Video

Pelikulak ikusteko formatua. Guztira 17 gigabyteko ahalmena du diskoaren bi geruza eta bi aldeak erabiliz gero.

DVD-ROM

Honen oinarritzko teknologia DVD Videoaren berdina da, baina ordenagailuak ulertzeko moduko fitxategi formatuak ere baditu. Produktu honek CD-ROM arruntak ordeztuko ditu denbora gutxian.

DVD-R

Honen edukiera 4,7 gigabytekoa da. Jatorriz garapen profesionalerako diseinatu zen, baina gaur egun erabiltzaile arruntentzako bertsioa garatzen ari dira. CD-Rarekin gertatzen zen bezala, erabiltzaileek behin bakarrik graba ditzakete diskoak.

DVD-RAM

Honekin DVDa disko gogor birtuala bihurtzen da, ausazko irakurketako eta idazketako atzipenarekin. Jatorriz 2,6 gigabyteko edukiera zuen, baina gaur egun 4,7 gigabyte onartzen ditu alde bakoitzetik. Ehun mila aldiz graba daiteke bertan.

DVD-RW

Aurrekoaren antzekoa da, baina honen teknologiak irakurketa- eta idazketa-atzipen sekuentzialagoa bultzatzen du, disko gogor batean baino era jarraigoan. Alde bakoitzean 4,7 gigabyte onartzen ditu eta mila bider graba daiteke bertan.

DVD Audio

Audioko azken formatua da. CDaren kalitatea bikoiztu egiten du. Audio-diskorik erabilienean izatea espero da.